



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irilaren 13a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuaren 2012ko kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2012ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina (11. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren 2012ko kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako Nafarroako Parlamentuaren 2012ko kontuei buruzko aholku-txostena, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuerras

Nafarroako Parlamentuaren 2012ko kontuei buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
 - II. Nafarroako Parlamentua (2. or.).
 - III. Helburuak eta norainokoa (3. or.).
 - IV. Iritzia (3. or.).
1. eranskina. 2012ko ekitaldiko kontuen egoerari buruz (4. or.).
 2. eranskina. Nafarroako Parlamentuaren aurrekontu-gastuen bilakaera 2001-2012 epean (10. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2013ko martxoaren 11n harturiko Erabakia betez eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz, 2012ko Nafarroako Parlamentuaren kontu orokorrei buruzko aholkularitza txosten hau prestatu

da; kontu horiek 2012ko martxoaren 15ean jaso zituen Ganbera honek.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Azterketa-lana 2013ko apirilean egin da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO PARLAMENTUA

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du eta bere esku du legegintzako ahalmena.

50 parlamentarik osatzen dute. 2011ko ekainaren 15ean egin zuen Parlamentua eratzeko bilkura, zortzigarren legegintzaldiari hasiera emateko; sei talde politiko dira, 2011ko maiatzaren 22an izandako hauteskundearen emaitzen ondorioz.

Parlamentuak Osoko Bilkuraren eta Batzordeen (arrunt edo berezien) bitartez funtzionatzen du. Gobernu-organoak Lehendakaria, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira.

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren zati bat dira.

Nafarroako Parlamentuari 2012an aplikatzekoa zaion araudia ondoko hau da, besteak beste:

- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 22an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen testu bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- Parlamentarien ordainsarien araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauek dira:

- Egiaztatzea ea Nafarroako Parlamentuaren 2012ko ekitaldiko kontuak, bere alderdi nagusi guztietan, behar bezain irudi doia erakusten duten 2012ko abenduaren 31n erakunde horrek zeukan ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaizari buruz, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Nafarroako Parlamentuak 2012ko ekitaldian izan duen jardueran indarrean dagoen legedia bete duen egiaztatzea.

Txostenaren norainokoa, 2012. urteko kontuak dira; horiek prestatzeko eginkizuna eta horien edukia Parlamentuaren ardura dira; kontu horietan kontularitzako egoera-orriak sartzen dira: aurrekontuaren likidazio-egoera, balantzea, ekonomia-eta ondare-emaiztako kontua, ondare garbiaren

aldaketen egoera, eskudiru-fluxuen egoera eta memoria.

Lan hori Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz gauzatu da.

IV. IRITZIA

Gure iritzian, Nafarroako Parlamentuaren 2012ko ekitaldiko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastuen eta aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dago-kenez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, hartan jasota dauden kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Orobat, 2012ko ekitaldian zehar, Nafarroako Parlamentuaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, M^a Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. 2012ko EKITALDIKO KONTUEN EGOERA-ORRIAK**I. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA.****Gastuen Aurrekontuaren Likidazioa**

Kontzeptua	Behin-behineko aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorrutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Diruzaintza-gerakina
1. Langile-gastuak	6.614.689	0	6.614.689	5.807.970	% 88	5.807.970	0	806.719
2. Ondasun arruntzen eta zerbitzuen gastuak	2.421.966	74.397	2.496.363	1.348.273	% 54	1.279.176	69.096	1.148.090
4. Transferentzia arruntak	3.031.737	0	3.031.737	2.940.551	% 97	2.877.503	63.049	91.186
6. Inbertsio errealak	518.210	26.368	544.578	144.193	% 26	123.366	20.827	400.385
8. Finantza-aktiboak	57.795	0	57.795	45.876	% 79	45.876	0	11.919
9. Finantza-pasiboak	89.449	-21.449	68.000	796	% 1	796	0	67.204
Gastuak, guztira	12.733.846	79.316	12.813.162	10.287.659	% 80	10.134.687	152.972	2.525.503

Diru-sareren Aurrekontuaren Likidazioa

Kontzeptua	Aurrekontua kreditua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorrutako eskubideak	Betetakoaren ehunekoa	Kobrantzak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	75.656	2.645	75.656
4. Transferentzia arruntak	12.050.532	0	12.050.532	12.050.532	% 100	12.050.532
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	15.000	0	15.000	13.543	% 90	13.543
7. Kapital-transferentziak	634.849	0	634.849	634.849	% 100	634.849
8. Finantza-aktiboak	30.010	79.316	109.326	35.294	% 32	35.294
9. Finantza-pasiboak	595	0	595	0	% 0	0
Diru-sarrerak guztira	12.733.846	79.316	12.813.162	12.809.874	% 99,97	12.809.874

Foru Komunitateko Diruzaintzari atzera ordaindutako funtsak: 2.493.180 euro

Aurrekontu-emaiza

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
a. Eragiketa arruntak	12.139.731	10.096.794	2.042.937
b. Kapital-eragiketak	634.849	144.193	490.656
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	12.774.580	10.240.987	2.533.596
c. Finantza-aktiboak	35.294	45.876	-10.582
d. Finantza-pasiboak	0	796	-796
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	35.294	46.672	-11.378
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	12.809.874	10.287.659	2.522.215
Doitzeak			
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			79.316
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak			0
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			0
II. Doikuntzak guztira (3+4+5)			79.316
Aurrekontu-emaiza doitia (I+II)			2.601.531

2. Diruzaintza-gerakina

Osagaiak	2012	2011
1. Funts likidoak	2.843.851	2.975.147
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	471	4.560
(+) aurrekontu korrontetik	0	0
(+) aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	471	4.560
(+) Merkataritzako eragiketen emaitza	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	2.735.970	2.900.390
(+) aurrekontu korrontetik	152.971	155.164
(+) aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	2.582.999	2.745.226
(+) Merkataritzako eragiketen emaitza	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+-2-3)	108.352	79.317
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	108.352	79.317
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina (I-II-III)	0	0

3. Balantzea

	2012	2011
AKTIBOA, GUZTIRA	22.115.421	22.933.349
A) Aktibo ez arrunta	19.255.242	19.941.467
I. Ibilgetu ukiezin garbia	118.779	170.625
3. Aplikazio informatikoak	118.110	169.576
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	669	1.049
II. Ibilgetu material garbia	19.078.133	19.719.413
2. Eraikuntzak	17.091.801	17.644.089
5. Bestelako ibilgetu materiala	1.986.332	2.075.324
Makineria eta tresnak	290.027	322.117
Altzariak	118.448	212.672
Informazio-prozesuetako ekipoak	116.887	157.426
Garraio-osagaiak	0	0
Bestelako ibilgetu materiala	1.460.970	1.383.109
V. Epe luzeko inbertsio finantzarioak	58.330	51.429
4. Bestelako finantza-inbertsioak	58.330	51.429
Epe luzeko maileguak	58.330	51.429
B) Aktibo arrunta	2.860.179	2.991.882
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	471	4.560
3. Administrazio publikoak	471	4.560
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	471	4.560
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	15.856	12.176
4. Bestelako finantza-inbertsioak	15.856	12.176
Epe laburreko maileguak	15.856	12.176
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	2.843.851	2.975.146
2. Diruzaintza	2.843.851	2.975.146
	2012	2011
PASIBOA, GUZTIRA	22.115.421	22.933.349
A) Ondare garbia	19.379.068	20.031.779
I. Ekarrutako ondarea	19.270.716	19.952.463
Ondarea	12.566.431	13.248.178
Lagapenean jasotako ondarea	3.000	3.000
Jasotako ondare atxikia	6.701.285	6.701.285
II. Sortutako ondarea	108.352	79.316
2. Ekitaldiko emaitzak	108.352	79.316
Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	108.352	79.316
B) Pasibo ez-korrontea	0	0
C) Pasibo korrontea	2.736.354	2.901.570
II. Epe laburreko zorrak	384	1.180
4. Bestelako zorrak	384	1.180
Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	384	1.180
IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.735.970	2.900.390
1. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak	152.971	155.164
Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurrekontu arruntean	152.971	155.164
3. Administrazio publikoak	2.582.999	2.745.226
Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla eta	10.297	0
Ogasun publikoa hartzekodun, erabilera bereziagatik	540	0
Gizarte Segurantzza hartzekodun	78.982	71.650
Foru Ogasun publikoa hartzekodun, kredituen itzulketagatik	2.493.180	2.673.576

4. *Ekonomia eta ondare emaitzako kontua.*

	2012	2011
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.685.381	12.993.334
a) Ekitaldikoak	12.685.381	12.993.334
a.2) Transferentziak	12.685.381	12.993.334
Gobernuaren kapital-transferentziak	634.849	697.799
Gobernuaren transferentzia arruntak	12.050.532	12.295.535
3. Salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea	0	0
Argitalpenen salmenta	0	0
6. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrerak batzuk	75.656	76.890
Itzulketak	75.656	76.890
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira	12.761.037	13.070.224
8. Langile-gastuak	5.888.393	5.938.033
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	5.060.404	5.172.265
Soldatak eta ordainsariak	2.254.314	2.295.401
Behin-behineko langileen soldatak	434.979	443.244
Funtzionarioen soldatak	2.229.414	2.247.670
Kontratupeko langileen soldatak	61.273	68.894
Parlamentarien dietak eta garraioak	7.824	23.414
Bestelako dietak eta garraioak	15.772	39.275
Langileen bestelako gizarte-gastuak	37.464	35.456
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	19.364	18.910
b) Gizarte-zamak	827.989	765.768
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzaren	827.989	765.768
9. Eginiko transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.940.551	2.904.935
Transferentzia arruntak	2.940.551	2.904.935
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.267.849	1.405.796
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.047.890	1.098.405
c) Beste batzuk	219.959	307.391
12. Ibilgetuaren amortizazioa	837.319	844.267
B. Kudeaketa arrunteko gastuak guztira	10.934.112	11.093.032
I. Kudeaketa arrunteko emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A-B)	1.826.924	1.977.192
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.826.924	1.977.192
15. Finantza-sarrerak	13.543	41.434
b.2) Bestelakoak	13.543	41.434
Interesak	13.543	41.434
III. Eragiketa finantzarioen emaitza	13.543	41.434
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia)	1.840.467	2.018.626

5. Eskudiru-fluxuen egoera-orria

I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak	2012	2011
A) Kobrantzak	12.774.580	13.111.658
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	12.685.381	12.993.334
Gobernuaren kapital-transferentziak	634.849	697.799
Gobernuaren transferentzia arruntak	12.050.532	12.295.535
3. Salmenta garbiak eta zerbitzuak ematea	0	0
Argitalpenen salmenta	0	0
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	13.543	41.434
Interesak	13.543	41.434
6. Beste kobrantza batzuk	75.656	76.890
Itzulketak	75.656	76.890
B) Ordainketak	12.775.220	12.991.187
7. Langile-gastuak	5.798.574	5.866.273
Lehendakaritzaren eta parlamentarien soldatak eta lansariak	2.254.314	2.295.401
Behin-behineko langileen soldatak	434.979	443.244
Funtzionarioen soldatak	2.218.577	2.247.670
Kontratupeko langileen soldatak	61.273	68.894
Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantza	749.007	694.118
Parlamentarien dietak eta garraioak	7.824	23.414
Bestelako dietak eta garraioak	15.772	39.165
Beste langileria-gastu batzuk	37.464	35.456
Parlamentarien bestelako gizarte-gastuak	19.364	18.910
8. Eginiko transferentziak eta emandako diru-laguntzak	2.877.503	2.873.658
Transferentzia arruntak	2.877.503	2.873.658
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.198.752	1.209.392
Errentamenduak	2.263	2.208
Konponketa eta kontserbazioa	250.230	215.999
Hornidura	213.380	187.825
Komunikazioa	62.622	54.939
Beste enpresa batzuek egindako lanak	455.456	486.737
Garraio-gastuak	8.004	14.359
Bulegoko materiala	43.845	53.481
Zenbait gastu	162.952	193.844
13. Bestelako ordainketak	2.900.390	3.041.864
Aurrekontu arrunteko hartzekodunak	155.164	203.618
Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela-eta	2.673.576	2.761.167
Gizarte Segurantza hartzekodun	71.650	77.079
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A-B)	-640	120.471

II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak	2012	2011
C) Kobrantzak:	60.965	65.894
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	60.965	65.894
Epe luzeko maileguak	16.536	15.624
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	18.758	27.621
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	25.671	22.649
D) Ordainketak	191.621	336.169
4. Inbertsio errealeen erosketa	123.366	260.229
5. Finantza-aktiboekiko eragiketak	796	0
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	67.459	75.940
Epe luzeko maileguak	23.436	39.060
Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	22.440	11.486
Osasun-laguntzako maileguen aurrerakinak	21.583	25.394
Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (C-D)	-130.656	-270.275
VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen emendio/gutxitze garbia (I+II+III+IV+V)	-131.296	-149.804
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	2.975.147	3.124.951
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	2.843.851	2.975.147

6. Ondare garbiaren aldaketen orobateko egoera

	I. Ekarrirako ondarea	II. Sortutako ondarea	Guztira
A. Ondare garbia 2011ko ekitaldiaren bukaeran	19.952.464	79.361	20.031.825
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	0	0	0
C. 2012ko ekitaldiaren hasierako ondare garbia			20.031.825
D. 2012ko ekitaldian ondare garbiak izandako aldaketak	-681.748	29.036	-652.712
1. Ekitaldian izandako aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		108.352	108.352
3. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-681.748	-79.316	-761.064
E. Ondare garbia 2012ko ekitaldiaren amaieran	19.270.716	108.397	19.379.113

2. ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN AURREKONTU-GASTUEN BILAKAERA 2001-2012 EPEAN**Euro konstanteak**


Euroak, milakotan)

Gastuak (euro konstantetan)	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Langile-gastuak	2.185	2.286	2.663	2.905	3.179	3.387	4.364	6.106	6.186	6.054	5.821	5.808
Ondasun arruntak eta zerbitzua erostea	1.578	1.807	1.988	2.401	2.478	2.507	1.930	1.611	1.635	1.559	1.433	1.348
Transferentzia arruntak	1.875	1.852	1.844	2.256	2.365	2.544	2.600	2.587	2.749	2.868	2.905	2.941
Inbertsio errealak	3.092	10.345	1.433	319	622	229	802	267	243	385	278	144
Finantza-aktiboak	45	49	49	38	47	52	52	33	29	44	50	46
Finantza-pasiboak	0	2	4	1	1	0	0,5	3	0	0	0	1
Guztira	8.775	16.341	7.981	7.920	8.692	8.719	9.748,5	10.607	10.842	10.910	10.487	10.288

Euro konstanteak

(Euroak, milakotan)

Gastuak (euro konstantetan)	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Langile-gastuak	2.931	2.947	3.340	3.526	3.722	3.888	4.810	6.644	6.699	6.381	5.978	5.808
Ondasun arruntak eta zerbitzua erostea	2.116	2.330	2.493	2.915	2.902	3.878	2.127	1.753	1.771	1.643	1.472	1.348
Transferentzia arruntak	2.514	2.387	2.312	2.738	2.769	2.920	2.866	2.815	2.977	3.023	2.983	2.941
Inbertsio errealak	4.146	13.335	1.797	387	728	263	884	290	264	406	285	144
Finantza-aktiboak	60	63	61	47	55	60	57	36	31	46	52	46
Finantza-pasiboak	0	2	5	1	2	0	0	3	0	0	0	1
Guztira	11.767	21.064	10.008	9.614	10.178	11.009	10.744	11.541	11.742	11.499	10.770	10.288



2002ko gastua bat dator Parlamentuaren egoitza berrirako eraikina egiteko lanekin

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2012ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2012ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiriari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren 2012ko kontu orokorrari buruzko aholku-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (11. or.).

I.1. Arartekoaren eginkizuna eta langileria (11. or.).

I.2. Araubide ekonomikoa eta kontabilitatekoa (12. or.).

I.3. Aplikatzekoa den araudia (12. or.).

II. Helburua eta norainokoa (12. or.).

III. Iritzia (13. or.).

1. eranskina. Finantza-egoerarako orriak (14. or.).

1. 2012ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (14. or.).

2. 2012ko aurrekontu-emaiza (15. or.).

3. Diruzaintza-gerakina, 2012ko abenduaren 31n (15. or.).

4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (16. or.).

5. 2012ko ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua eta haren aplikazioa (17. or.).

2. eranskina. Nafarroako Arartekoaren aurrekontu-gastuaren bilakera 2001-2012 epean (19. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak Nafarroako Arartekoaren kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa, 2012ko ekitaldiari buruzkoa, egin du, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz. Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2013rako onetsi zuen fiskalizazio-programan.

Landa-lana auditore batek eta auditoretzako teknikari batek osaturiko taldeak egin du 2013ko maiatzean. Gainera, Kontuen Ganberako zerbitzu informatiko, juridiko eta administratiboen laguntza jaso dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Arartekoaren bulegoko langileei.

I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNA ETA LANGILERIA

Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazio publikoaren balizko abusu eta akatsen aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta urtero haren aurrean erantzuten du egindakoarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako.

Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik.

Arartekoaren bulegoko 2012rako plantilla organikoak zortzi lanpostu ditu; horietatik bost behin-behineko langileenak dira, eta hiru, funtzionarioenak.

Nafarroako Foru Komunitatearen defizit-helburua betetze aldera, 2012rako plantillak lau lanpostu gutxiago dauzka: bi aholkulari, administrari bat eta gelazain bat.

I.2. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KONTABILITATEKOA

Arartekoa kontabilitaterako, kontu-hartzaitzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago; halaber, kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago.

Arartekoaren aurrekontu-proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2010ean Kontularitza Publikoko Plan Orokorra onartu ondoren, Nafarroako Arartekoak kontularitzako plan horren arabera aurkeztu zituen bere kontuak 2011. urtean.

Horrela, aurreko urteetan bezala, aurrekontuaren likidazioak, egoera-balantzeak, ekonomia- eta ondare-emaizaren kontuak eta memoriak osatzen dute kontu orokorra, eta urte horretan ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta esku-diruen fluxuarena gehitzen zaizkio.

2012ko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honakoak aipa daitezke:

- Aitortutako betebeharrak 698.894 euro egin dute, eta betetze-maila % 85ekoa izan da. 2011ko ekitaldiarekin alderatuz gero, betebeharrak horiek ehuneko 25 murriztu dira.

- Hona kapituluaren araberrako gastua: Langile-gastuak, ehuneko 67rekin; ondasun arruntak eta zerbitzuak, ehuneko 23rekin.

- Aitortutako diru-sarrerek 821.733 euro egin dute, eta betetze-maila % 100ekoa izan da. Jasotako diru-sarrera horietatik gehienak Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik heldu dira. Zehazki, Nafarroako Gobernutik heldu ziren transferentzietatik 820.675 euro egin zuten; horietatik 781.150 funtzionamendu-gastuetara bideratu ziren, eta 39.525 euro, berriz, inbertsio-gastuetara.

- 122.838 euro itzuliko zaizkio Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari, ekitaldiko gerakina baitira.

- 2. eranskinean, aurrekontu-likidazioek 2001etik 2012ra izan duten bilakaera aurkezten da, euro konstantetan. Eranskinean ikus daitekeen bezala, 2007ra arte aurrekontuak gora egiten joan ziren eta ondoren jaisten joan dira. 2012an, 2007ko aurrekontuaren ia erdia dira.

I.3. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Arartekoari 2012an aplikagarri zaion araudia ondoko lege eta erregelamenduez osatuta dago:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.

- Ikusirik Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an onetsia.

- Kontabilitate Plana, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1994ko abenduaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua da iritzi bat eman ahal izatea ondokoei buruz:

a) Ea Arartekoaren 2012ko kontu orokorrak zehazki islatzen duen alderdirik behinenetan erakunde horren ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta ea guztiok onartuak diren kontaduriako printzipio eta arauak jarraituz prestatu den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) 2012an aurrera eramandako jarduerari aplikatzeko zaion legeria zenbateraino errespetatu duen entitateak.

Fiskalizazioaren norainokoari dagokionez, lanaren ardatza izan da kontua osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren aztertzea, bai eta haren agiri- eta justifikazio-euskarriak ere. Beharrezkotzat jo diren hautaprobak eta prozedurak egin dira lanaren helburuei buruzko frogak nahikoak lortze aldera.

Metodologiari dagokionez, lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsirikiko fiskalizazio printzipioei eta arauak jarraituz, zeinak Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

III. IRITZIA

2012ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

Gure iritzian, Nafarroako Arartekoaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari

dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Orobat, 2012ko ekitaldian zehar, Nafarroako Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa

legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

Txosten hau eman da indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA: FINANTZA-EGOERAKO ORRIAK**I. 2012ko GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****Gastuak kapituluz kapitulu**

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa
1. Langile-gastuak	503.559	0	503.559	468.350	% 93
2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	244.600	0	244.600	159.559	% 65
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.100	31.692	% 93
6. Inbertsio errealak	39.500	0	39.500	39.292	% 99
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	698.894	% 85

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoaren ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	0	100	0	0
4. Transferentzia arruntak	781.150	0	781.150	781.150	% 100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.009	0	1.009	883	% 87
7. Kapital-transferentziak	39.526	0	39.526	39.526	% 100
8. Finantza-aktiboak	174	0	174	174	% 100
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	821.733	% 100

Ogasun Publikoari atzera ordaindutakoa: 821.733

– 698.894

GUZTIRA**122.839**

2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2011				2012			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doitzeak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doitzeak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	970.980	885.523		85.457	782.033	659.602		122.431
b. Kapital-eragiketak	87.804	47.261		40.543	39.526	39.292		233
c. Merkataritza eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Finantzaz bestelako eragiketak, guztira (a+b+c)	1.058.784	932.784		126.000	821.558	698.894		122.664
d. Finantza-aktiboak	2.093	0		2.093	174	0		174
e. Finantza-pasiboak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	2.093	0		2.093	174	0		174
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (I=1+2)	1.060.877	932.784		128.092	821.733	698.894		122.839
3. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinez finantzatuta gastatutako kredituak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak guztira (II=3+4+5)			0	0			0	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA (I+II)				128.093				122.839

Osagaiak	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
1. (+) Funts likidoak	226.863	158.086
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	493	0
(+) aurrekontu korrontetik	0	0
(+) aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	493	0
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	
3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	227.356	158.086
(+) aurrekontu korrontetik	59.060	7.202
(+) aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	168.296	150.884
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontusailak	0	0
(+) Egindako kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
(+) Egindako ordaintzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2+3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Diruzaintzako atxiki gabeko gerakina = (1-II-III)	0	0

4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA	2011	2012	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2011	2012
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	597.348	595.157	A) ONDARE GARBIA	597.522	595.157
I. Ibilgetu ukiezina	12.269	43.171	I. Ekarrirako ondarea	0	0
3. Aplikazio informatikoak	12.269	43.171	II. Sortutako ondarea	597.522	595.157
II. Ibilgetu materiala	585.079	551.985	I. Aurreko ekitaldietako emaitzak	597.522	595.157
2. Eraikinak	444.175	431.877	Ondarea	602.984	600.619
4. Ondare Historikoaren ondasunak	41.509	41.509	Lagatako ondarea	-5.462	-5.462
5. Bestelako ibilgetu materiala	99.396	78.600			
Makineria, instalazioak eta tresneria	11.068	7.855			
Altzariak eta tresnak	25.158	19.824			
Informazio-prozesuetako ekipoak	44.929	31.866			
Bestelako ibilgetu materiala	18.241	19.056			
B) AKTIBO KORRONTEA	227.530	158.086	C) PASIBO KORRONTEA	227.356	158.086
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	493	0	IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	227.356	158.086
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	444	0	I. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	59.060	7.202
3. Administrazio publikoak	49	0	3. Administrazio publikoak	168.296	150.884
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	174	0	Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela-eta	31.511	20.309
2. Kredituak eta zorra adierazten duten beste balio batzuk	174	0	Foru Ogasun Publikoa, eskubide pasiboak direla eta	0	998
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	226.863	158.086	Foru Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela-eta	128.093	122.839
2. Diruzaintza	226.863	158.086	Gizarte Segurantzza hartzekodun	8.693	6.738
Kutxa	820	239			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	226.043	157.847			
AKTIBOA, GUZTIRA	824.878	753.243	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	824.878	753.243
ORDENA KONTUAK	484	0	ORDENA KONTUAK	484	0
Abalak eta bermeak	484	0	Abalak eta bermeak	484	0
Jasotako abalak	484	0	Jasotako abalak	484	0

5. 2012ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA ETA HAREN APLIKAZIOA

KONTUAK	2011	2012
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	1.057.044	820.676
a) Ekitaldikoak	1.057.044	820.676
a.2) Transferentziak	1.057.044	820.676
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	87.804	39.526
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	969.240	781.150
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak guztira (1+2+3+4+5+6+7)	1.057.044	820.676
8. Langile-gastuak	-622.481	-468.350
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-533.640	-396.722
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-64.543	-59.933
Aldi baterako langileen soldatak eta lansariak	-340.374	-220.377
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-106.981	-99.321
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-21.742	-17.091
b) Gizarte-zamak	-88.841	-71.628
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-88.841	-71.628
9. Eginiko transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-34.196	-31.692
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-228.847	-159.559
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-228.847	-159.559
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-32.838	-39.860
B) Kudeaketa arrunteko gastuak guztira (8+9+10+11+12)	-918.362	-699.462
I. KUDEAKETA ARRUNTEKO EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)	138.682	121.214
13. Ibilgetu ez finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-galera eta besterentzeagatiko emaitzak	-1.120	-1.624
Bajak eta besterentzeak	-1.120	-1.624
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	137.562	119.590
15. Diru-sarrera finantzarioak	1.740	883
b) Balio negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituenak	1.740	883
b.2) Bestelakoak	1.740	883
III. ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA (15+16+17+18+19+20)	1.740	883
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	139.302	120.473

EMAITZAREN APLIKAZIOA	2011	2012
Emaizta ekonomikoa eta ondarezkoa	139.302	120.473
<i>Kredituak sartzea</i>	0	0
<i>Ekitaldiko altak</i>	47.261	39.292
<i>Birsailkatzeak</i>	-33.958	-41.484
<i>Inbertsioak</i>	13.303	-2.191
<i>Finantza-aktiboen eta -pasiboen alde garbia</i>	-2.093	-174
- Ondarea	-11.210	2.365
Emaizta ekonomiko eta ondarezko doitua	128.093	122.839
Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	0	0
Ogasun publikoari itzuli beharreko funtsak	128.093	122.839

Gastuak 2012ko euro konstantetan

Kap- Art- Kon.	Izendapena	2001ean aitortutako betebeharrak	02an aitortutako betebeharrak	2003an aitortutako betebeharrak	2004an aitortutako betebeharrak	2005ean aitortutako betebeharrak	2006an aitortutako betebeharrak	2007an aitortutako betebeharrak	2008an aitortutako betebeharrak	2008an aitortutako betebeharrak	2010ean aitortutako betebeharrak	2011n aitortutako betebeharrak	2012an aitortutako betebeharrak
1	1. kapitulua. Langile-gastuak	241.776	404.508	551.338	629.412	619.407	659.708	596.276	648.740	656.469	661.611	639.288	468.350
20	Onasun aruntan eta zerbitzuen gastuak	0	0	568	562	551	551	543	547	11.214	11.100	11.332	8.070
21	Konponkerak, mantentze lanak eta konseharak	8.343	10.663	19.367	33.315	47.463	38.637	41.519	52.010	46.115	41.631	39.711	29.208
22	Materiaia, hornidurak eta beste	114.609	261.718	238.558	327.239	209.140	355.088	313.644	256.255	249.032	222.699	179.917	120.763
23	Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordaina	11.001	24.221	0	0	0	0	5.068	5.417	9.863	5.814	4.086	1.519
24	Beste kalte-ordain batzuk	0	0	7.482	10.186	9.721	6.459	0	0	0	0	0	0
2	2. kapitulua. Onasun aruntak eta zerbitzuak	133.952	286.622	265.974	371.301	286.875	400.735	380.774	314.228	316.335	281.444	235.025	159.559
4	4. kapitulua. Transferentzia aruntak	2.216	27.648	25.135	32.668	24.098	23.645	25.382	36.652	38.220	38.088	35.119	31.692
6	6. kapitulua. Inbentario erretrak	81.150	52.659	108.856	53.794	39.141	69.974	78.505	64.392	106.914	22.039	48.537	39.292
7	7. kapitulua. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	143.274	205.332	0	0	0	0	0
8	8. kapitulua. Finantza-aktiboak	0	0	4.899	4.196	0	0	0	0	0	4.412	0	0
9	9. kapitulua. Finantza-pasiboak	0	0	0	1.035	0	0	0	0	0	0	0	0
	GUZTIRA	458.095	781.437	956.202	1.082.405	949.519	1.297.336	1.266.270	1.064.213	1.117.937	1.007.584	957.969	688.684

